

Gebenaldeko zuzendari-artatzailea Batzorde Iraunkorreko bilkuretarra joango da, hitz egiteko eskubidea bai baina botorik ez duela».

#### ALDIBATERAKO XEDAPEN BAKARRA

Harik eta 18. atalean ohartematen diren Udaletako, nekazaritza eta basogintza alorreko eta elkartek ekologista eta kontserbazionistetako ordezkariek hautatu eta izendatzeko erak araudiz garatu arte, eta Urdaibai Biosfera-Gebenaldeko Zaingo Batzordeko zuzendaritzaz organo funtzionamendu normala bermatzekotan, Zaingo Batzordeburuari egokituko zaio kasuan kasuko izendapenak egitea, eraginpeko alor eta erakundeek proposatuta eta Zaingo Batzordeak irizpena eman ondoren.

#### AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren bihamarenean jarriko da indarrean lege hau.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadi-ko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteizen, mila bederatziehun eta laurogeita hamazazpiko azaroaren seian.

Lehendakariordea,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Director-Conservador de la Reserva asistirá a las reuniones de la Comisión Permanente con voz pero sin voto».

#### DISPOSICIÓN TRANSITORIA ÚNICA

En tanto se proceda al desarrollo reglamentario de los modos de elección y designación de los representantes municipales, del sector agrícola-forestal y de las asociaciones ecologistas y conservacionistas, previstos en el artículo 18, y a fin de garantizar el normal funcionamiento de los órganos rectores del Patronato de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, corresponderá a su Presidente, a propuesta de los sectores y entidades afectadas, previo informe del Patronato, realizar los nombramientos correspondientes.

#### DISPOSICIÓN FINAL

La presente ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por consiguiente, ordeno a todos/as los/las ciudadanos/as de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a seis de noviembre de mil novecientos noventa y siete.

El Vicepresidente,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

#### JAURLARITZAREN LEHENDAKARIORDETZA HERRIZAINGO SAILA

#### Zk-5763

248/1997 DEKRETUA, azaroaren 4koa, diru bereizietarako diren kredituetako fondoak erabiltzeko aukera duten agintarien ondare-aitormenak jaso eta erre-egistratzeari buruzkoa.

Gastu bereizietarako kredituak nola erabili eta kontrolatu arautzeari buruzko maiatzaren 30eko 5/1997 Legeko 6. atalean jasotakoaren arabera, kreditu horietako fondoak erabiltzeko aukera duten agintariekin euren ondare-egoerari buruzko aitormena egin behar dute, bai karguak hartzean bertan eta bai urtero ere.

Maiatzaren 30eko 5/1997 Legeko azken xedapenetaik bigarrenean esaten denez arautegian erabakiko da administazioko zein organoren ardura izango den ondareei buruzko aitormenak jaso eta erregistratztea. Justizi auzitegiek eta lege horretako 7. atalean xedatutakoaren arabera hautatutako legebiltzarkideek informazio horren berri izateko eskubidea eukiko dute.

#### VICEPRESIDENCIA DEL GOBIERNO Y DEPARTAMENTO DE INTERIOR

#### Nº-5763

DECRETO 248/1997, de 4 de noviembre, sobre el depósito y registro de las declaraciones patrimoniales de las autoridades que tengan acceso a la utilización de fondos procedentes de créditos destinados a fondos reservados.

El artículo 6 de la Ley 5/1997, de 30 de mayo, reguladora de la utilización y control de los créditos destinados a gastos reservados, prevé que las autoridades que tengan acceso a la utilización de fondos procedentes de estos créditos estén obligados a efectuar una declaración sobre su situación patrimonial en la toma de posesión de sus cargos, así como anualmente.

La Disposición Final Segunda de dicha Ley 5/1997, de 30 de mayo, remite al desarrollo reglamentario para la determinación del órgano de la Administración encargado del depósito y registro de las citadas declaraciones patrimoniales a los que tendrán acceso los tribunales de justicia y los parlamentarios elegidos conforme al artículo 7 de la Ley antedicha.

Ondareen ondasun-erregistroa antolatzeak berme osagarria dakarkio kreditu horien kudeaketari buruz legebiltzarkideek egingo duten kontrolari. Beraz, kontrol hori egin behar duten legebiltzarkideek baino ez dute izango horretarako aukera. Ondorioz, erregistro horren ardura eta zaingoa, Jaurlaritzaren eta Legebilzarraren arteko harremanak bereganaturik dituen organo administratiboak eskuratuko ditu.

Ondorioz, Jaurlaritzaren lehendakarioordearen eta Herrizaingo sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1997ko azaroaren 4an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

#### XEDATU DUT:

##### **1. atala.** – Helburua.

Gastu bereizietarako kredituak nola erabili eta kontrolatu arautzeari buruzko maiatzaren 30eko 5/1997 Legeko 6. atalean aipatzen diren ondare-aitormenak burutu, jaso eta erregistratzea dekretu honen bidez arautzen da, lege horretako azken xedapenetatik bigarrena garatuz horretarako.

##### **2. atala.** – Aitortu beharrekoa.

1.– Herrizaingo sailburuak eta maiatzaren 30eko 5/1997 Legearen arabera kreditu horietako fondoak erabiltzeko aukera izango duten agintariekin euren ondare-egoerari buruzko aitormena aurkeztu beharko dute; eta hori, karguak hartzten dituztenean, eta urtero ekainaren 15etik uztailaren 15era bitartean.

2.– Hurrengo ataletan adierazten diren edukia eta forma aintzakotzat hartuz egingo dira aitormenak. Aitormena aurkeztu behar duena bera arduratuko da jar daitezen datuen egiatasunaz eta eguneratasunaz; idazki bidez egingo du hori.

##### **3. atala.** – Aitormenaren edukia.

Dituzten ondasunak, eskubideak, obligazioak, balore edo aktibo finantzario negoziagarriak, sozietateetako partaidetzak eta bere ondarekoak izan daitezkeen gainerako titulu ekonomikoak agertuko dira aitormenean.

Ekonomi ekitaldi bakoitzeko pertsona fisikoen errentaren gainezko zergaren eta, hala behar izanez gero, ondare-zergaren kopiak ere erantsiko zaizkio.

##### **4. atala.** – Aitormena egiteko modua.

1.– Gastu bereizietarako kredituak erabiltzeko ahalmena duten agintariekin Herrizaingo sailburuaren aurrean egingo dituzte euren aitormenak, berorrek eskatu ostean. Egin eta gero, gutunazal batean sartu, itxi eta zigilatu egingo dute sailburuaren aurrean.

2.– Herrizaingo sailburuak Jaurlaritzako idazkarien aurrean egin beharko du aitormena. Gutunazal batean sartu, itxi eta zigilatu egingo da idazkariaren aurrean.

Sailburuaren eta agintarien aitormenak gutunazal batean sartuko dira eta dekretu honetan aurrikusitako

La previsión de un registro de bienes patrimoniales implica una garantía complementaria al control parlamentario sobre la gestión de estos créditos, razón por la cual su acceso está limitado a los propios parlamentarios sobre quienes recae dicho control, de forma que parece conveniente que la llevanza y custodia del citado registro se lleve a cabo por el órgano que dentro de la Administración tiene encomendada la función de actuar como órgano de relación entre el Gobierno y el Parlamento.

En su virtud, a propuesta del Vicepresidente del Gobierno y del Consejero de Interior, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 4 de noviembre de 1997,

#### DISPONGO:

##### **Artículo 1.**– Objeto.

Es objeto del presente Decreto regular la realización, el depósito y el registro de las declaraciones patrimoniales a que se refiere el artículo 6 de la Ley 5/1997, de 30 de mayo, reguladora de la utilización y control de los créditos destinados a gastos reservados, desarrollando la Disposición Final Segunda de la misma.

##### **Artículo 2.**– Obligados a declarar.

1.– El Consejero de Interior y aquellas autoridades que, de conformidad con la Ley 5/1997, de 30 de mayo, tengan acceso a la utilización de fondos procedentes de estos créditos presentarán, en la toma de posesión de sus cargos y anualmente entre el 15 de junio y el 15 de julio, una declaración sobre su situación patrimonial.

2.– Las declaraciones se efectuarán con el contenido y en la forma que se expresa en los artículos siguientes, siendo el obligado a presentar la declaración el responsable de la veracidad y actualidad de los datos que cumplimente, para lo cual acompañará un escrito en este sentido.

##### **Artículo 3.**– Contenido de la declaración.

En la declaración se expresarán la relación de los bienes, derechos y obligaciones que posean, los valores o activos financieros negociables, las participaciones societarias y cualquier otro título con contenido económico que integre su patrimonio.

Se acompañarán también las copias correspondientes a los impuestos sobre la renta de las personas físicas y, en su caso, sobre el patrimonio de cada ejercicio.

##### **Artículo 4.**– Forma de la declaración.

1.– Las autoridades facultadas para acceder a créditos destinados a gastos reservados efectuarán sus declaraciones ante el Consejero de Interior, a requerimiento de éste, y las introducirán en un sobre que se cerrará y sellará ante el citado Consejero.

2.– El Consejero de Interior realizará su declaración ante el Secretario del Gobierno y la introducirá en un sobre que se cerrará y sellará ante el mismo.

Su declaración se unirá a la del resto de las autoridades, introduciéndose en un sobre que se presentará en el

ondare eta eskubideen erregistroan aurkeztuko da gutu-nazala.

3.- Aitormen guztiak eta, hala behar izanez gero, horietaz egin daitezen zuzenketak, erregistroan jasoko dira.

**5. atala.**- Ondare-ondasunen eta -eskubiden erre-gistroa.

1.- Gastu bereiztarako diren kredituetako fondoak erabiltzeko aukera duten agintarien ondare-ondasunen eta -eskubideen erregistroa sortzen da. Dekretu honetako 3. atalean adierazten diren aitormenak jaso eta erre-gistratuko dira berorretan.

2.- Jaurlitzaren Lehendakariordetzaren menpe-dagoen Jaurlitzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrare-kiko Harremanetarako Zuzendaritzan egongo da Erre-gistroa.

3.- Tratamendu automatizatua duten fitxategiak sortu eta ustiatzea Erregistroa arteztek, urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoan eta azaroaren 26ko 30/1992 Legean finkatutako mugak aintzat hartuz egingo da. Lehenengoko legea izaera pertsonaleko xehetasunen tra-tamendu automatizatuari buruzkoa da; eta Herri-Administrazioen Lege-Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio Ihardunbideari buruzkoa bigarrena.

**6. atala.**- Erregistroan sartzea.

1.- Erregistroak izaera bereizia du. Beraz, maiatzaren 30eko 5/1997 Legeko azken xedapenetatik bigarre-nean xedatutakoaren arabera, justiziko epaimahaiak eta lege horretako 7. atalean xedatutakoaren arabera hauta-tutako legebiltzarkideak baino ezingo dira erregistro horretan sartu.

2.- Erregistro horretan lan egin dezaten langileek euren lanetik ezagutzen dituzten xehetasunak isilpean gorde behar dituzte beti.

#### GEHIGARRIZKO XEDAPENA

**Bakarra.**- Sailburuak eta gastu bereiztarako kre-dituak erabiltzeko ahalmena duten agintariekin, dekretu honek indarra hartzen duenetik gehiago hilabeteko epean, dekretu honetan araututako ondare-aitormena egingo dute.

#### AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.**- Jaurlitzaren Lehendakariordetzaren egitura organikoa onartzen duen urriaren 31ko 463/1995 Dekretuko 6. atalari beste lerroalde bat gehitzen zaio, 6 zenbakikoa alegia:

«6.- Gastu bereiztarako diren kredituetako fondoak erabiltzeko aukera duten agintarien ondare-onda-sunen eta -eskubideen erregistroa Zuzendaritzan honi atxikitzen zaio.»

**Bigarrena.**- Jaurlitzaren lehendakarioordeari eta Herrizaingo sailburuari ahalmena ematen zaie xedapen bidez dekretu hau garatzeko.

Registro de bienes y derechos patrimoniales previsto en este Decreto.

3.- La totalidad de las declaraciones y, en su caso, la subsanación de las mismas, serán depositadas en el Registro.

**Artículo 5.**- Registro de bienes y derechos patrimo-niales.

1.- Se crea el Registro de bienes y derechos patrimo-niales de las autoridades que tengan acceso a la utiliza-ción de fondos procedentes de créditos destinados a gastos reservados en el que se depositarán y registrarán las declaraciones a que se refiere el artículo 3 de este Decreto.

2.- El Registro se adscribe a la Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parla-mento dependiente de la Vicepresidencia del Gobierno.

3.- La creación y explotación de ficheros objeto de tratamiento automatizado que se realice para la llevanza del Registro habrán de observar los límites de la Ley Orgánica 5/1992, de 29 de octubre, relativa al trata-miento automatizado de los datos de carácter personal y de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de régimen jurídico de las administraciones públicas y del proce-dimiento administrativo común.

**Artículo 6.**- Acceso al Registro.

1.- El Registro tiene carácter reservado y, como tal, sólo podrán acceder al mismo, de conformidad con la Disposición Final Segunda de la Ley 5/1997, de 30 de mayo, los tribunales de justicia y los parlamentarios elegidos de conformidad con lo dispuesto en el artículo 7 de dicha Ley.

2.- El personal que preste servicios en dicho Regis-tro tiene el deber permanente de mantener en secreto los datos de informaciones que conozca por razón de su trabajo.

#### DISPOSICIÓN ADICIONAL

**Única.**- En el plazo de un mes desde la entrada en vigor de este Decreto el Consejero de Interior y aque-las autoridades facultadas para acceder a créditos desti-nados a gastos reservados realizarán la declaración patrimonial regulada en esta norma.

#### DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**- Se añade un párrafo 6 al artículo 6 del Decreto 463/1995, de 31 de octubre, por el que se aprueba la estructura orgánica de la Vicepresidencia del Gobierno:

«6.- Se adscribe a esta Dirección el Registro de bie-nes y derechos patrimoniales de las autoridades que tengan acceso a la utilización de fondos procedentes de créditos destinados a gastos reservados.»

**Segunda.**- Se faculta al Vicepresidente del Gobierno y al Consejero de Interior para dictar las disposiciones de desarrollo del presente Decreto.

**Hirugarrena.** – Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunetik aurrera hartuko du indarra dekreto honek.

Vitoria-Gasteizen, 1997ko azaroaren 4an.

Jaurlaritzaren lehendakariordea,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Herrizaingo sailburua,  
JUAN MARÍA ATUTXA MENDIOLA.

## Agintariak eta Langileria

### Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

#### OSASUN SAILA

##### Zk-5764

260/1997 DEKRETUA, azaroaren 11koa, Zerbitzu zuzendariaren kargu-uztea deklaratzeko dena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18. ataleko j) idazatian, 26. ataleko 6 idazatian eta 29. atalean xedatutakoarekin bat etorriz, Osasun sailburuak proposatuta eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1997ko azaroaren 11n egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

**1. atala.** – Eusebio Melero Beaskoetxea jaunak Zerbitzu zuzendariaren kargua utzi duela deklaratza, administrazioan beste kargu bat beteko baitu, eta, bidez, egindako lanagatik eskerrak ematea.

**2. atala.** – Dekreto hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1997ko azaroaren 11n.

Lehendakariordea,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Osasun sailburua,  
IÑAKI AZKUNA URRETA.

**Tercera.** – El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 4 de noviembre de 1997.

El Vicepresidente del Gobierno,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Interior,  
JUAN MARÍA ATUTXA MENDIOLA.

## Autoridades y Personal

### Nombramientos, Situaciones e Incidencias

#### DEPARTAMENTO DE SANIDAD

##### Nº-5764

DECRETO 260/1997, de 11 de noviembre, por el que se dispone el cese del Director de Servicios.

De conformidad con lo dispuesto en los artículos 18, apartado j), 26, apartado 6, y 29 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, a propuesta del Consejero de Sanidad, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 11 de noviembre de 1997

DISPONGO:

**Artículo 1.** – Cesar, a D. Eusebio Melero Beaskoetxea, como Director de Servicios, por pasar a ocupar otro cargo en la Administración, agradeciéndole los servicios prestados.

**Artículo 2.** – El presente Decreto surtirá efectos al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 11 de noviembre de 1997.

El Vicepresidente,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Sanidad,  
IÑAKI AZKUNA URRETA.